

DIRU-SARRERAK

- **Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

Gure produktua muxutruk izango litzateke, horrela, gure bezero kopurua izugarri handituko da. Guk, nahiz eta produktuak muxutruk izan, anuntzio publizitarioak jarriko genituzke, eta publizitatea eginiko markek dirua emango ligukete anuntzioak jartzearren. Gure UNI_MG produktua liburu eta apunteen salmentan oinarritua dagoenez produktu bakoitzaren salmentagatik komisio bat kobratuko genuke.

Horrez gain, 3. diru iturri gisa aplikazioa erabiltzeko kontu propio bat egin beharko da eta guk horren bitartez lortuko genuke dirua. Horregatik zenbat eta kontu gehiago sortu guk orduan eta diru gehiago irabaziko genuke. Azkenik, aplikazioaren erabileraren arabera lortuko genuke dirua. Adibidez, pertsona batek aplikazioa asko erabiltzen duen eskutik diru gehiago lortuko genuke, gutxi erabiltzen duen batekin alderatuz gero.